

**Baskepensiones BGAE Indibidualaren  
BASKEPENSIONES 30  
Gizarte Aurreikuspeneko Plan  
Indibiduala**

**(Inbertsio Printzipioen Adierazpena)**

**2023ko ekaina**

## **I. PRINTZIPIO OROKORRAK**

Inbertsioak aukeratzean, kontuan hartuko dira estatutuak, erregelamenduak eta indarrean dauden lege-xedapenak.

Baskepensiones BGAE Indibidualaren aktiboak inbertitzean, bazkide arrunten eta onuradunen interesari soilik begiratuko zaio, eta inbertsioak Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundearen (ELGA) merkatu antolatuetan egingo dira nagusiki.

Inbertsioen kudeaketa beharreko kualifikazioa eta lan eskarmentua duten pertsonen esku egongo da edo, egiteko horiek kanpora ateratzen badira, kreditu erakundeen, inbertsio kolektiboko erakundeen elkarte kudeatzaileen, inbertsio enpresen edo bizitza alorrean diharduten erakunde aseguratzaileen esku edo zeregin horretarako beharreko baimena duen beste edozein erakunderen esku, aldezturik beharreko kontratua sinatuta.

Aktiboen inbertsioa irizpide jakin batzuen arabera egingo da: segurtasuna, errentagarritasuna, likidezia, dibertsifikazioa, sakabanaketa, diru-kongruentzia eta epea. Aktiboek behar adinako dibertsifikazioa izango dute, aktibo batekiko, jaulkitzaile batekiko edo enpresa-talde batekiko gehiegizko mendekotasuna saihesteko, eta kontrako alderdiaren arriskua dibertsifikatzeko arrazoizko politika bat edukiko da beti.

Baskepensiones BGAEk bere inbertsioen xede diren ondasunen eta eskubideen gaineko titulartasuna edukiko du, eta horiek libre erabili ahal izango ditu.

## **II. INBERTSIO PROFILA**

Erakundea planetan banatuta dago. Plan bakoitzak bere inbertsio-profila du, Gobernu Batzordeak aldatu ahal izango duena.

Baskepensiones 30 BAPri atxikitako ondareak mantendu egingo du inbertitutako ondarearen % 30 arterainoko portzentajea errenta aldakor kotizatuan inbertitutako ondarea, zuzenean edo zeharka, Planaren inbertsio-bokazioarekin koherenteak diren Inbertsio Kolektiboko Erakundeen (IKE) bitartez; gainerako ondarea honako hauetan inbertituko da nagusiki: ageriko edo eperako gordailuak, eta epe laburreko errenta finko publiko edo pribatua, mugaeguna aurrez ezarri gabe. Unean uneko egoeraren arabera, % 2 gainditu ahal izango da errenta aldakorreko maximoa, etenik gabeko hilabeteko epean, gehienez ere.

## **III. GEI POLITIKA INBERTSIOAN**

Banakako Baskepensiones BGAEek GAI politika bat dauka eta dokumentu honen eranskinean “Produktu finantzarioei buruzko 2019/2088 (EB) Araudiko 8. artikulua, 1, 2 eta 2 bis atalak eta 2020/852 (EB) Araudiko 6. artikulua, lehenengo paragrafoan jasotako aurre-kontratutako informazioa” jasotzeaz gain, [www.baskepensiones.es](http://www.baskepensiones.es) eta [www.kutxabank.es](http://www.kutxabank.es) web orrialdeetan argitaratuta dago.

## **IV. INBERTSIORAKO EGOKIAK DIREN AKTIBOEN DESKRIBAPENA**

Planak, zuzenean edo zeharka, IKE erakundeen bitartez, gehienez bere ondarearen % 30 arte inbertituko du errenta aldakor kotizatuan.

Errenta finkoko aktiboetan inbertituko da, gordailuak barne, eta diru-merkatuaren tresnetan, kotizatuak ala ez, zuzenean edo zeharka, IKE erakundearen bitartez.

Planaren inbertsioetako Errenta Finkoko aktiboek kreditu-kalitate handia (gutxieneko ratinga: A-) eta ertaina (ratinga: BBB+ eta BBB- bitartean) izango dute. Dena den, gehienez ere ondarearen % 20 inbertitu ahal izango da kreditu-kalitate txikia duten aktiboetan (gehienez ere, honainokoak: BB-). Bestalde, ondarearen % 10era arte inbertitu ahal izango da kreditu-kalitatearen aurreikuspenik gabeko errenta finkoko aktiboetan. Kreditu-kalitateko ezinbesteko jaitzieren aurrean, Erakundeak berehala balioetsiko du eragindako posizioak saldu edo mantentzearen egokitasuna, aurreko mugak ondarearen % 10era arte gainditzeko aukerarekin, Planaren ondarea ahalik eta gehien babeste aldera.

Kreditu-kalifikazioan, aitortza duen agentzia bat hartuko da kontuan gutxienez, eta agentzia horren kreditu-kalifikazioen desglosek handiena. Jaulkipenetan gutxieneko rating bat baldin bada go eta horiek kalifikatu gabe baldin badaude, jaulkitzailearen ratingean erreparatuko da.

Gehienez ere, ondarearen % 3 inbertitu ahal izango da errenta aldakorra eta errenta finkoaren alternatiba diren aktiboetan, eta, batez ere, hauek: Hedge-Funds, Arrisku Kapitalerako Funtseak eta Higiezinaren Sektoreko Funtseak, beste aukera batzuei kalterik egin gabe

Erakundeak operazioak egin ahal izango ditu deribatuen merkatu antolatuetan negoziatutako finantza-tresna deribatuekin, estaldura- eta inbertsio-helburuak betetzeko. Gainera, Erakundeak estaldura- eta inbertsio-helburua duten deribatuen merkatu antolatuetan kontratatu ez diren finantza-tresna deribatuak erabiltzea aurreikusten du, errenta finkoaren, dibisen eta errenta aldakorraren gaineko azpiko kasuan.

Bestalde, ez da baztertzen merkatu arautuetan negoziatutako onartu ez diren Errenta Finkoko eta Errenta Aldakorreko baloretan inbertitzea; betiere, baldintza hauek betetzen badituzte: sozietate-egoitza ELGAKo herrialde batean duten entitateek jaulkiak izatea; transmisio librea mugaturik ez izatea; euren finantza-egoerak ikuskatuta egotea; eta azkenik, inbertsioaren unean, auditoreak azken erreferentzia-ekitaldiari oniritzia emanda izatea.

Aktibo ez-kotizatuetako inbertsioak ez du gaindituko Planaren ondarearen % 10eko muga, edo uneko legediak finkatuko duen muga (hori txikiagoa balitz).

Planak bere ondarearen % 5 inbertituko du gehienez gorabidean dauden herrialdeetan.

Dibisa-arriskuarekiko esposizio osoak ez du Planaren ondarearen % 30eko portzentajea gaindituko.

Honako hauek ez dira aurrez ezarriko: jaulkitzaileak (publikoak edo pribatuak), baloreek kotizatzen duten herrialdeak edo merkatuak (gorabidean dauden merkatuetan inbertitu ahal izango da), errenta finkoko zorroaren batez besteko iraupena, burtsa-kapitalizazioa, sektore ekonomikoa.

Oro har, indarreko legediak jasotzen dituen aktibo guztiak erabili ahal izango dira inbertsiorako.

## **V. INBERTSIOEI LOTUTAKO ARRISKUAK**

- Inbertsioak Errenta Aldakorrean: merkatu-arrisku handia izan ohi dute, hegazkortasun handiaren eraginez.
- Inbertsioak Errenta Finkoko Aktiboetan: merkatu-balioak gorabeherak ditu interes-tasen eta kreditu-kalitatearen arabera. Aktibo hauen merkatu-prezioaren gorabeheretikiko sentikortasuna handitu egiten da mugaegunerako epearekin.
- Inbertsioak Tresna Deribatuetan: eskura eginiko inbertsioen arriskuei gehitzen zaizkien arriskuak dituzte, palanka-efektuagatik. Gainera, merkatu antolatuetan kontratatu ez diren tresna deribatuetan, beste arrisku batzuk ere badaude: esaterako, eragiketen emaitza berrmatuko duen alderdien arteko konpentsazio-ganberarik ez dagoenez, gerta daiteke kontrako alderdiak kontratua ez betetzea.
- Inbertsioak euroak ez diren dibisetan: kanbio-tasaren gorabeheratik eratorritako arriskua dute.
- Inbertsio Alternatiboak: arrisku gehigarriak dituzte; hala nola gardentasunik eza prezioaren eraketan; likidezia-arriskua; merkatu-arrisku gehigarria palanka-efektuagatik; araudi-arriskua; eragiketa-arriskua; balorazio-arriskua; eta iruzur-arriskua, aktiboak ostuak izatekoa, inbertsiorako erabiltzen diren IKE erakundeetako kontrol-sistemen ahuleziagatik. Muga bat ezartzen zaie inbertsio hauei: ondarearen % 3 gehienez.
- Inbertsioak Kotizatu Gabeko Aktiboetan: likidezia-arrisku handiagoa dute. Gainera, arriskua egon daiteke aktiboaren balioa zenbatesteko orduan, merkatuak ez duelako balio hori zuzenean finkatzen. Muga bat ezartzen zaie inbertsio hauei: ondarearen % 10 gehienez.

## **VI. INBERTSIOEN ARRISKUAK NEURTZEKO METODOAK ETA KONTROL-PROZEDURAK**

Hainbat prozedura erabil daitezke inbertsioen arriskuak kontrolatzeko. Jarraian zehazten dira.

Kontrol horien bitartez, zorroaren arriskuen ikuspegi global bat lor daiteke, eta, aldi berean, zorroa osatzen duten aktiboen ikuspegi espezifikoa bat. Aktiboen artean, hurrengo atal bakoitzean arrisku handiena dutenak identifika daitezke, eta haien egokitzapena egiaztatuta daitezke aurreko ataletan ezarri diren mugen barnean:

- Merkatu-arriskua:

Portzentajezko esposizioaren bidez honako hauek neurtzeko kontrol-prozedurak daude:

- Aktibo motak: errenta finkoa, errenta aldakorra, IKE erakundeak, etab.
- Sektorekako banaketa.
- Dibisarekiko esposizioa.
- Esposizio geografikoa.

Interes-tasekiko esposizioa aldatutako iraupenaren bidez neurtzen da errenta finkoaren kasuan.

Deribatuekiko esposizioa, aldiz, portzentajeen bitartez ez ezik, gehienezko galera probablearen kalkuluaren bidez ere neurtzen da.

- Kreditu / kontrako alderdi arriskua:

Honako hauek neurtzeko kontrol-prozesuak daude:

- Kreditu-kalifikazio maila (rating), bai aktibo eta jaulkitzaileena bai zorroarena bere osotasunean.
- Portzentajezko esposizioa jaulkitzailearen / kontrako alderdiaren arabera.

- Likidezia-arriskua:

Likidezia-maila zehazteko kontrol-prozedurak daude (aktibo bakoitzaren nahiz zorro osoaren likidezia-maila). Maila hori neurtzeko, likideziaren sorkuntza-gunegi erreparatzen zaie, planaren likidezia-beharrekin erkatuta.

Bestetik, Gobernu Batzordeak ezarritako likidezia-maila minimoa betetzen dela kontrolatzen da.

- Lege-arriskua:

Inbertsioei dagokienez, araudiaren betetze-maila kontrolatzen da, eta, horrekin batera, Inbertsio Printzipioen Adierazpenak eta Gobernu Batzordeak onartutako jarraibideek ezarritakoaren aplikazioa.

Ezarritako mugaren bat gainditzen denean, egoera erregularizatuko du erakundeak lehenbailehen, eta jakinaren gainean jarriko du erakundearen Presidentea. Azken horrek azalpenak emango ditu Gobernu Batzordearen hurrengo bilkuran, baldin desbideratzea garrantzitsua izan bada. Hala eta guztiz ere, Gobernu Batzordeak uste badu muga-gainditzea merkatuaren egoera igarokor baten ondorio izan dela, gainditzea baimendu lezake, egoerak iraun bitartean.

- Eragiketa-arriskua:

Eragiketarekin lotutako alderdiak kontrolatzeko prozesuak daude. Besteak beste: eragiketak berrestekoak; eragiketen likidaziokoak; eta kontziliazioa posizio kontabilizatuen eta gordailutatuen artean.

## **VII. PLAN BAKOITZAREN ARRISKU-PROFILA**

Baskepensiones 30 Planaren zorroak % 30eko inbertsio-maximoa izango du Errenta Aldakor kotizatuan (II. ataleko salbuespenean izan ezik); hots, arrisku-maila ertaina.

Arriskua finkatzean, maila hauek hartu dira kontuan:

Oso Txikia: Batik bat Errenta Finkoko inbertsioetara bideratutako zorroa, Errenta Aldakorrarekiko esposiziorik gabe.

Txikia: Errenta Finkoko eta Errenta Aldakor kotizatuko aktiboetara bideratutako zorroa (bigarrenek ez dute guztizkoaren % 15a gaindituko).

Ertaina: Errenta Aldakor kotizatuko aktiboetan % 30 arte inbertitutako zorroa.

Handia: Errenta Aldakor kotizatuko aktiboetan % 60 arte inbertitutako zorroa.

Oso Handia: Errenta Aldakor kotizatuko aktiboetan % 60tik gora inbertitutako zorroa.

## **VIII. AURREIKUSITAKO URTEKO ERRENTAGARRITASUN-HELBURUA**

Planaren errentagarritasuna bi elementu hauek baldintzatuko dute: aktiboen banaketak eta inbertitzen den merkatuen bilakaerak.

Edonola ere, urteko azken Gobernu Batzordean, Planaren errentagarritasunaren estimazio bat egingo da hurrengo ekitaldi osorako.

**2019/2088 (EB) Erregelamenduaren 8. artikuluko 1., 2. eta 2 bis zenbakietan eta 2020/852 (EB) Erregelamenduaren 6. artikuluko lehen lerrokadan aipatzen diren finantza-produktuei buruzko kontratu aurreko informazioa.**

**Inbertsio jasagarria** jarduera ekonomiko batean inbertitzea da, ingurumen- edo gizarte-helburu bati laguntzen diona, betiere inbertsioak ez badio kalte esanguratsurik eragiten ezekin ingurumen- edo gizarte-helbururi, eta inbertitzen den enpresek gobernantza oneko jardunbideak jarraitzen badituzte.

**EBko taxonomia** 2020/852 (EB) Erregelamenduan aurreikusitako sailkapen-sistema bat da, zeinaren bidez **ingurumenaren aldetik jasagarriak diren jarduera** ekonomikoen zerrenda bat ezartzen baita. Erregelamendu horrek ez du aurreikusten sozialki jasagarriak diren jarduera ekonomikoen zerrendarik. Ingurumen-helburua duten inbertsio iraunkorrak taxonomiara egokitu daitezke, edo ez.

**Iraunkortasun-adierazleek** finantza-produktuak sustatzen dituen ingurumen- edo gizarte-ezaugarriak nola lortzen diren neurtzen dute.

**Produktuaren izena:**  
BASKEPENSIONES 30

**Erakunde juridikoaren identifikatzailea:**  
V-20595260

### Ingurumen- edo gizarte-ezaugarriak

Finantza-produktu honek inbertsio jasagarriko helburu bat du?	
●● <input type="checkbox"/> Bai	●○ <input checked="" type="checkbox"/> Ez
<input type="checkbox"/> Gutxieneko <b>inbertsio jasagarriak egingo ditu, ingurumen-helburu honekin:</b> % ____	<input checked="" type="checkbox"/> Ingurumen- edo gizarte-ezaugarriak sustatzen ditu, eta, inbertsio jasagarria helburu ez badu ere, inbertsio jasagarrien % ____ izango du gutxienez. 35
<input type="checkbox"/> EBren taxonomiaren arabera ingurumenaren aldetik jasagarritzat jo daitezkeen jarduera ekonomikoetan	<input checked="" type="checkbox"/> EBren taxonomiaren arabera ingurumenaren aldetik jasagarriak izan daitezkeen jarduera ekonomikoetan
<input type="checkbox"/> EBren taxonomiaren arabera ingurumenaren aldetik jasagarriak ez diren jarduera ekonomikoetan	<input checked="" type="checkbox"/> EBren taxonomiaren arabera ingurumenaren aldetik jasagarriak ez diren jarduera ekonomikoetan
<input type="checkbox"/> Gutxieneko <b>inbertsio jasagarriak egingo ditu, helburu sozial honekin:</b> % ____	<input type="checkbox"/> Ingurumen- edo gizarte-ezaugarriak sustatzen ditu, <b>baina ez du inolako inbertsio iraunkorrik egingo</b>



#### Zer ingurumen- edo gizarte-ezaugarri sustatzen ditu finantza-produktu horrek?

Plan horrek ingurumen- edo gizarte-ezaugarriak sustatzen ditu ( 2019/2088 (EB) Erregelamendua).

Planak sozialki arduratsua den inbertsio irizpideak sustatzen ditu: finantza irizpidez gain, ingurumen, gizarte eta gobernu onaren irizpideak jarraitzen dira.

Planaren idearioa sozietatearen gizarte-erantzukizuneko inbertsio-politikan oinarritzen da. Politika hori urtero zehaztu eta berrikusi behar da, gutxienez, eta Gobernu Batzordeak onartu behar du. Sozietate kudeatzaileak, bere erabaki- eta kontrol-mekanismoen bidez, ziurtatzen du inbertitzen duen erakundeek honako printzipio hauek betetzen eta sustatzen dituztela bere jardun-eremuan:

a) **Giza eta Lan Eskubideak errespetatzea:** Mundu osoan aitortutako oinarritzko giza eskubideak babestea eta errespetatzea, eskubide horien urraketan zuzenean edo zeharka inplikatzeari saihestuz. Elkartzeko askatasuna errespetatzea, negoziazio kolektiborako eskubidea benetan aitortzea, nahitaezko lan mota oro ezabatzen edo haurren lana desagerrarazten laguntzea, eta enpleguko diskriminazio-praktikak indargabetzen laguntzea. Genero berdintasuna eta emakumeen eta nesken ahalduntzea bilatzea.

b) **Ingurumena eta biodibertsitatea zaintzea:** Ingurumena bultzatuko duen prebentzio-ikuspegiari eustea, ingurumen-erantzukizun handiagoa sustatzen duten ekimenak sustatzea eta ingurumena errespetatzen duten teknologien garapena eta hedapena bultzatzea. Isuriak murrizteko ahaleginak Parisko Akordioaren helburuekin bat datozen ebaluatzea: berotze globala industriaurreko mailarekin alderatuta 2°C baino gutxiago mugatzea.

Task Force on Climate-Related Financial Disclosures (TCFD) taldearen gomendioei babesa ematea: enpresek beren inbertitzaileei klima-aldaketarekin lotutako arriskuei eta horiek kudeatzeko moduari buruzko informazioa eman diezaieten sustatzeko lantaldea da, eta horrek merkatuaren gardentasuna eta klimarekin lotutako arriskuen gaineko kontzientzia areagotzen laguntzen du.

c) **Gobernu Oeko politikak eta ustelkeriaren aurkako borroka:** Gobernu-organoetako kideen eskubideak errespetatuko dituen erakunde korporatiboa sustatzea. Enpresa estrategia eta politikak gauzatzeko moduan dauden kudeaketa-organoak sustatzea, kontrol eta oreka egokiekin, ikuskapen independentearekin, alderdi interesdun garrantzitsuen inplikazioarekin, epe luzerako helburuekin lerrotutako ordainketa-sistemekin eta lege eta kode nazionalak betetzearekin. Ustelkeria mota guztietan inplikatzea saihestea, estortsioa eta eroskeria barne, zuzenean edo zeharka.

d) **Zerga arloko jardunbide egokiak:** Enpresen barruan zerga-politika arduratsuak aplikatu daitezkeen sustatzea.

○ **Zer iraunkortasun-adierazle erabiltzen dira finantza-produktu honek sustatzen dituen ingurumen- edo gizarte-ezaugarri bakoitzaren lorpena neurtzeko?**

Planerako definitutako strategiaren arabera, inbertitu beharreko balioak zehazteko, planaren idearioa hartuko da kontuan, irizpide hauen arabera, dagozkien adierazleekin, baina aktibo tipologia bakoitzari egokituta:

1. **Baztertzailak:** Planak ez du inbertituko arma eztabaidagarrien ekoizpenarekin lotutako aktiboetan (pertsonek kontrako minak, barreiatze-bonbak, armamentu kimiko edo biologikoa...), ez eta haien jardueran muturreko ingurumen-kaltea eragiten duten aktiboetan ere, erremedio-neurririk hartu gabe. Era berean, uko egingo dio ustelkeria larria, adingabeen esplotazioa edo gerra edo gatazkaren ondorioz banakako eskubideak urratzea eragiten duten jaulkitzaileetan inbertitzeari, bai eta egoitza paradisu fiskal batean dutenei ere.
2. **Baloratiboak:**
  - 2.1. Igorleen ebaluazioa ASG alderdian. Planak inbertsioak hautatzeko best in class metodologia aplikatzen du, adierazle batzuen arabera. Horretarako, inbertsioen kudeatzaileak ASG ratinga esleitzeko prozesu bat du ezarrita, inbertitzen duen jaulkitzaileentzat edo jaulkitzaile izan daitezkeenentzat. Prozesu horretan, kudeatzaileak jaulkitzaileen jarduna aztertzen du ondorengo adierazleetan, eta horiei pisu desberdina ematen die, dagozkien eremu geografikoaren arabera:
    - 2.1.1. Errenta finko pribatuko eta errenta aldakorreko inbertsioetarako:
      - Ingurumen-eremuan: karbono-intentsitatea (berotegi-efektuko gasen guztizko intentsitatea (BEG) eskuragarri badago, edo karbono dioxidoaren guztizko intentsitatea (CO<sub>2</sub>), berotegi-efektuko gasen tona metriko gisa kalkulaturik, eskuragarri badago, edo enpresaren moneta egindako salmenten milioi bat sarrerengatik isuritako CO<sub>2</sub>a), hondakinen intentsitatea (hondakinen tona metriko gisa kalkulaturik salmentek sortutako hondakinak, arriskutsuak zein ez-arriskutsuak, enpresaren erreferentziako moneta egindako salmenten milioi sarrera bakoitzeko) eta uraren intentsitatea (uraren guztizko erabilera, erabilgarri badago, edo uraren erauzketaren guztizko intentsitatea metro kubikotan, enpresaren dibisako salmenten milioi bat sarrerengatik).
      - Gizarte-eremuan: lan-gorabeherak, langileen txandakate-ratioa eta gobernu-organoetako emakumeen ehunekoa.
      - Gobernu onaren eremuan: kideen ehuneko proportzionala Gobernu Batzordean.
      - Sustainabilitycisen ASG ratinga.



2.1.2. Emisore publikoen kasuan, neurketa Sustainalytics Country Risk Rating-ean oinarritzen da. Sustainalytics Country Risk Rating hori berriro kalkulatu da, hura osatzen duten ASG faktoreak gehiago haztatuz:

- Ingurumenaren arloan: Kapital naturala eta ekoiztua:
  - Energia eta klima-aldaketa: Karbono-intentsitatea murrizten eta karbono-mugak dituen mundu baterako trantsizioarako prestatzen ari diren herrialdeak gai izango dira epe luzera aberastasuna sortzeko.
  - Baliabideen erabilera: Eskura dituzten baliabideak modu iraunkorrean erabiltzen dituzten herrialdeek aurreikuspen hobekak dituzte epe luzera aberastasuna sortzeko.
  - Gobernantza: Litekeena da gobernantza eraginkorra duten herrialdeek eta zuzenbide-estatuak erabilera jasangarria eta kapital natural eta produktibaren babesa bermatu ahal izatea.
- Gizarte-arloan: Giza kapitala:
  - Oinarrizko premiak: Giza kapitalaren garapena biztanleriaren oinarrizko premiak zenbateraino asetzen diren arabera da.
  - Osasuna eta ongizatea: Era berean, giza kapitala osasuntsu dauden populazioetan sor daiteke.
  - Ekitatea eta aukera: Gizabanakoak modu justuan tratatzen dituzten ekonomiek, hezkuntza-aukera eta -aukera berdinak ematen dituztenek, Giza Kapitala modu eraginkorragoan sortuko dute denboran zehar.
- Gobernu onaren eremuan: Kapital instituzionala:
  - Indar instituzionala: Erakundeen kalitateak, erregulazioek eta zuzenbide-estatuak eragin handia dute nazio batek eskura dituen baliabideak eraginkortasunez erabiltzeko eta epe luzera aberastasuna sortzeko duen gaitasunean.
  - Eskubideak eta askatasunak: Zenbat eta handiagoa izan biztanleriak dituen eskubide eta askatasunen babesa, orduan eta gehiago lagundu dezake aberastasuna sortzen.
  - Bakea eta Egonkortasuna: Epe luzera aberastasuna sortzeko bakea eta egonkortasun soziala/politikoak behar dira.

2.1.3. Eta BGAEaren kasuan, planak Morningstarrek esleitutako ASG puntuazio onena duten ASGetan bideratzen ditu inbertsioak.

Adierazle horiek esparru bakoitzean duten garrantziaren eta datuen estaldura erabilgarriaren arabera alda daitezke, bakoitzari pisu desberdinak emanez jaulkitzaile bakoitzaren sektorearen alderdi esanguratsuenaren arabera.

2.2. Klima aldatetari buruzko Parisko Akordioaren helburuekin bat etortzea.

2.3. ASG eztabaidak kudeatzea (batez ere Sustainalytics-en berrien eta eztabaiden bidez).

### ○ Zeintzuk dira finantza-produktuak neurri batean lortu nahi dituen inbertsio jasangarrien helburuak, eta nola laguntzen du inbertsio iraunkorrak helburu horiek lortzen?

Plan honek neurri batean lortu nahi dituen inbertsio iraunkorren helburuak ingurumen eta gizarte alderdiak hobetzen laguntzearekin lotuta daude, Nazio Batuen Garapen Jasangarriko Helburuetan (GJH) identifikatutako gizarte eta ingurumen arazo nagusiak konpontzera bideratutako jarduerak duten enpresetan inbertituz.

Inbertsio jasangarritzat jotzen diren aktiboak identifikatzeko, planaren kudeaketa-taldeak kontuan hartuko du 2019/2088 (EB) Erregelamenduak adierazitako inbertsio jasangarrien definizioa. Horrela, inbertsio bat jasangarria dela ulertuko da honako premisa hauetakoren bat betetzen bada:

- I. Jasangarria da GJHetan eragin esanguratsua duten jardueren jaulkitzailea, baldin eta erakundeak kudeaketa orokor kaudimenduna egiten badu ingurumenari, gizarteari eta gobernantzari dagokienez, bai eta helburu jasangarriak berariaz finantzatzen dituzten jaulkipenak ere (bonu berdeak eta jasangarriak, baita sozialak eta jasangarritasunari lotutako bonuak ere).
- II. Gainera, jasangarria da ingurumenaren, gizartearen eta gobernantzaren arloetan kudeaketa orokor bikaina egiten duen igorlea.

BGAEen kasuan, haiek aitortutako inbertsio jasangarriaren maila ere hartuko da kontuan.



## Finantza-produktuak neurri batean egin nahi dituen inbertsio jasagarriek nola ez diote kalte nabarmenik eragiten ingurumeneko edo gizarteko inbertsio jasagarriko ezein helbururi?

Inbertsio iraunkorretarako, oro har, adierazi behar da ingurumen- edo gizarte-helburuei kalte esanguratsurik ez eragiteko printzipioa lotuta dagoela jasangarritasun-faktoreei buruzko inbertsio-erabakien gorabehera kaltegarri nagusiak zabaltearekin, eta hori kontuan hartzen du planak.

### ***Nola hartu dira kontuan iraunkortasun-faktoreei buruzko intzidentzia kaltegarrien adierazleak?***

BGAeak planean egindako inbertsioen jasangarritasun-inpaktu kaltegarrien azterketa eta jarraipena egiten du, intzidentzia kaltegarrien adierazleen bilakaeraren bidez. Ingurumen- edo gizarte-inpaktuak handitzeagatik edo konpromisoak edo politikak ez betetzeagatik, besteak beste, kontrako intzidentzia esanguratsu bat identifikatuz gero, arrazoiak ebaluatzen dira eta, beharrezkoa denean, arintze- eta zuzenketa-ekintzak gauzatzen dira. Neurri horiek inbertsio gehigarririk ez egitea, desinbertitzea, esposizioa murriztea edo behaketan jartzea izan daitezke. Neurri horiek, hala badagokio, jabetza aktiboa gauzatzearekin osa daitezke, inplikazio-ekintzen bidez, hala nola elkarrizketa eta/edo boto-eskubidea erabiltzea, inbertitutako konpainiaren partaidetzaren arabera.

Ingurumenaren, gizartearen eta lanaren, giza eskubideen errespetuaren eta ustelkeriaren eta eroskeriaren aurkako borrokaren arloko jasangarritasun-faktoreei buruzko inbertsio-erabakien intzidentzia kaltegarri garrantzitsuenak dira **kontrako intzidentzia nagusiak**.

### ***Nola egokitzen dira inbertsio jasagarriak Enpresa Multinazionalentzako ELGAren Gidalerroetara eta enpresei eta giza eskubideei buruzko Nazio Batuen printzipio gidarietara?***

BGAeko sozietate kudeatzaileak jaulkitzaileak aztertzeo prozesuek kontuan hartzen dituzte ELGAren Enpresa Multinazionalentzako Gidalerroak. Gobernuak enpresa multinazionaleri zuzendutako gomendioak dira, enpresa-jokabide arduratsu baterako printzipio eta arau boluntarioak adierazten dituztenak, bai eta Nazio Batuen printzipio gidariak ere, enpresei eta giza eskubideei buruzkoak. Horien helburua esparru orokor bat eskaintzea da, enpresa-jarduerari lotutako giza eskubideen aurkako inpaktuen arriskuari aurrea hartzeko eta aurre egiteko.



## Kontuan hartzen al ditu finantza-produktu horrek iraunkortasun-faktoreen gaineko gorabehera kaltegarri nagusiak?



**Bai** BGAeak, plan honetarako, kontrako gorabehera nagusiak jasotzen ditu, hau da, inbertitzen den enpresek ingurumenean eta/edo gizartean eragiten dituzten inpaktu negatiboak. Horretarako, EBren araberrako adierazlerik garrantzitsuenak hartzen ditu kontuan, bai ingurumenekoak (gas-isurketa, biodibertsitatea, ura, hondakin elektrikoak), bai gizartekoak (giza eskubideak, armak, generoa). Erabilitako metriken inpaktua inbertsio-erabaketan bazterketa-irizpide edo balorazio-irizpide gisa txertatzen da, edo gaika eta jabetza aktibo baten bidez, eta, beraz, inbertsioen bizitzan zehar gizartean eta/edo ingurumenean izango duen eragin negatiboa kontrolatzen da. PIAren informazioa BGAeren Aldizkako Informazio Publikoan sartuko da. Informazio gehiago honako webguneetan: [www.Baskepensiones.es](http://www.Baskepensiones.es) eta [www.kutxabank.es](http://www.kutxabank.es).

**Ez**

### **Zer inbertsio-estrategiari jarraitzen dio finantza-produktu honek?**

Produktuaren inbertsio-estrategiak prozesu zorrotz bati jarraitzen dio, eta planaren irizpide ekonomiko-finantzarioen eta arrisku-irizpideen azterketa eta sustatu nahi diren ingurumen- eta gizarte-ezaugarriak uztartzen ditu.

Inbertitu beharreko balioak zehazteko, planaren ideiak hartuko dira kontuan, planeko inbertsio guztiak erabakitzeo prozesuan aplikatzen diren irizpide hauen arabera, aktibo mota bakoitzari egokituta egon arren:

1. **Baztertzailak:** Planak ez du inbertituko arma eztabaidagarrien ekoizpenarekin lotutako aktiboetan (pertsonek kontrako minak, barreiatze-bonbak, armamentu kimiko edo biologikoa...), ez eta haien jardueran muturreko ingurumen-kalte eragiten duten aktiboetan ere, erremedio-neurririk hartu gabe. Era berean, uko egingo dio ustelkeria larria, adingabeen esplotazioa edo gerra edo gatazkaren ondorioz banakako eskubideak urratzea eragiten duten jaulkitzaileetan inbertitzeari, bai eta egoitza paradisu fiskal batean dutenei ere. Irizpide baztertzailen zerranda urtero berrikusten da gutxienez, eta Gobernu Batzordeak berretsi egiten du.

**Inbertsio-estrategiak** inbertsio-erabakiak bideratzen ditu, inbertsio-helburuak eta arriskuarekiko tolerantzia bezalako faktoreetan oinarrituta.

2. Baloratiboak:
  - 2.1. Igorleen ebaluazioa ASG alderdietan. Planak inbertsioak hautatzeko best in class metodologia aplikatzen du, adierazle batzuen arabera. Horretarako, inbertsioen kudeatzaileak ASG ratinga esleitzeko prozesu bat du ezarrita, inbertitzen duen jaulkitzaileentzat edo jaulkitzaile izan daitezkeenentzat. Prozesu horretan, kudeatzaileak jaulkitzaileen jarduna aztertzen du zenbait adierazletan, eta horiei pisu desberdina ematen die, dagokien sektorearen arabera.
  - 2.2. Klima aldaketari buruzko Parisko Akordioaren helburuekin bat etortzea.
  - 2.3. ASG eztabaidak kudeatzea (batez ere Sustainalytics-en berrien eta eztabaiden bidez).
3. Gaietan oinarrituta, aurreko balorazio-irizpideak indartzeko: bonu berdeak, sozialak, inpaktu-inbertsioak eta abar bultzatzea.
4. Errenta aldakorraren kasu zehatzean, planak jabetza aktiboa gauzatzen du bere eskubide politikoak erabiliz (boto-politika), bai eta elkarrizketa-politikaren bidez ere. Ariketa honen emaitzek, halaber, igorleen ebaluazioa atzeraelikatzen dute adierazitako ASG alderdietan.

Ez da ASG erreferentzia-indize espezifikorik ezartzen.

**Zein dira inbertsio jasangarriaren helburua lortzeko inbertsioak hautatzeko inbertsio-estrategiaren elementu lotesleak?**

Elementu lotesleak hauek dira:

- Bazterketak, aurrez deskribatuak eta planaren inbertsio-unibertsoan eragina dutenak.
- Jaulkitzaileei inbertsio-muga handiagoa edo txikiagoa ematen dieten barne-mugak, adierazitako ASG adierazleetan erakusten duten jardueraren eta Garapen Jasangarriko Helburuetan (GJH) duten eraginaren arabera.

Jaulkitzailearen kreditu-kalifikazioak aldez aurretik definitutako inbertsio-mugak modulatuak dira, hau da, +/- % 20 gehiago doitzen dira, esleitutako ASG kalifikazioaren arabera, inbertsio-estrategiaren atalean deskribatutako prozesuaren eta GJHren eraginaren arabera, eta, bonu berde eta sozialen kasuan, jaulkitzaileari esleitutako muga % 20 handituz sustatzen da inbertsioa. BGAeetan inbertitzeko, definitutako barne-mugek eskatzen dute IICetan inbertitzen duen zorroaren zatiak, batez beste, 3 Morningstar globoko edo gehiagoko kalifikazioa izatea, edo inbertsio jasangarriaren batez bestekoa % 30ekoa edo handiagoa izatea.

Aurrez adierazitako barne-mugak liburuxka hau inskribatzen den egunean indarrean daudenak dira, eta aldatu egin daitezke. Horretarako, Gobernu Batzordeak nahitaez onartu beharko du.

**Zein da inbertsio-estrategia hori aplikatu aurretik kontuan hartutako inbertsioen tamaina murrizteko konprometitutako gutxieneko ehunekoa?**

Ez dago konpromisorik inbertsioen tamaina gutxieneko ehuneko batean murrizteko.

**Zein da inbertitzen den enpresen gobernantza onaren praktikak ebaluatzeko politika?**

BGAearen inbertsioa eskuordetuta dagoen sozietate kudeatzaileak jaulkitzaileak aztertzekeko prozedurak ditu, inbertitzen duen konpainien gobernantza korporatiboa ebaluatzeko. Azterketa horren emaitzaren arabera, sozietateak erabaki dezake ez inbertitzea (kasuaren arabera, jaulkitzaile hori bazterketen zerrendan sartuta), desinbertitzea, esposizioa murriztea edo behaketan jartzea.

Era berean, neurri horiek, hala badagokio, jabetza aktiboa gauzatzearekin osa daitezke, inplikazio-ekintzen bidez, hala nola elkarrizketa eta/edo boto-eskubidea erabiltzea, inbertitutako konpainiaren partaidetzaren arabera.

**Gobernantza oneko** jardunbideen barruan sartzen dira kudeaketa oneko egiturak, langileekiko harremanak, langileen ordainsaria eta betebeharrak fiskalak betetzea.




## Zein da finantza-produktu honetarako aurreikusitako aktiboen esleipena?

**Aktiboen esleipenak** aktibo espezifikoetan egindako inbertsioen ehunekoa deskribatzen du.

Adierazitako ASG ezaugarriak sustatzeko deskribatutako prozedurak planeko inbertsio guztiei aplikatzen zaizkie oro har, tresna deribatupei, dibertsifikaziorako inbertsioei edo daturik ez duten inbertsioei eta planaren likidezia kudeatzeko inbertsioei izan ezik. Hala ere, salbuespen horiek ez dute inoiz planeko zorroaren % 50 gaindituko. Beraz, planaren zorroaren gehiengoak adierazitako idearioa betetzen du.

Horrez gain, planak inbertsio jasagarrien % 35eko gutxienekoa du.



### ○ Nola lortzen ditu deribatuen erabilerak finantza-produktuak sustatzen dituen ingurumen- edo gizarte-ezaugarriak?

Planak ez du deribaturik erabiltzen aurrez adierazitako ingurumen- edo gizarte-ezaugarriak sustatzeko.

Taxonomiara egokitzen diren jarduerak honako hauek dira:

- **Negozio bolumena**, inbertitzen den enpresen jarduera ekologikoetatik datozen diru-sarreraren proportzioa islatzen duena.
- **Aktibo finkoko inbertsioa**, inbertitzen den enpresek egindako inbertsio ekologikoak erakusten dituen, adibidez, ekonomia berde batera igarotzeko.
- **Ustiapen-gastuak**, inbertitzen den enpresen ustiapen-jarduera ekologikoak islatzen dituztenak.



### Zer neurritan egokitzen dira, gutxienez, ingurumen-helburu bat duten inbertsio jasagarriak EBko taxonomiara?

Planeko inbertsio iraunkorrek ingurumenaren aldetik jasagarritzat jotzen diren jarduera ekonomiko batean edo batzuetan lagundu ahal izango dute, 2020/852 (EB) Erregelamenduan eta gainerako garapen-xedapenetan (EBko Taxonomia) jasotako EBko ingurumen-taxonomiaren arabera. Bereziki, inbertsio horien helburua klima-aldaketa arintzea edo klima-aldaketara egokitzea izan daiteke. Plan honetako inbertsioen eta EBko taxonomiaren arteko gutxieneko lerrokatzea % 0 da.

**Jarraian ageri diren bi grafikoek berdez erakusten dute EBko taxonomiara egokitzen diren inbertsioen gutxieneko ehunekoa. Bonu subiranoak (\*) taxonomiara egokitzea zehazteko metodologia egokirik ez dagoenez, lehen grafikoak finantza-produktuaren inbertsio guztiei dagokien taxonomiara egokitzea erakusten du, bonu subiranoak barne; bigarren grafikoak, berriz, bonu subiranoak ez diren finantza-produktuen inbertsioei dagokienez soilik taxonomiara egokitzea erakusten du.**



( ) Grafiko hauen ondorioetarako, "bonu subiranoek" espezio subirano guztiak barne hartzen dituzte.

**Trantsizio-jarduerak** oraindik karbono-isuri gutxiko alternatibarik ez duten jarduerak dira, eta, besteak beste, emaitza onenekin bat datozen berotegi-efektuko gasen emisio-mailak dituzte.

**Jarduera erraztaileek** zuzenean ahalbidetzen dute beste jarduera batzuek ingurumen-helburu bati ekarpen nabarmena egitea.



Ingurumenaren aldetik iraunkorrak diren inbertsioak dira, eta **ez dituzte kontuan hartzen** EBren taxonomiaren arabera jasagarriak diren jarduera ekonomikoetarako irizpideak.



### **Zein da trantsizio-jardueretarako eta jarduera bideratzaileetarako inbertsioen gutxieneko proportzioa?**

Planeko inbertsio iraunkorrek trantsiziokotzat eta bideratzailetzat jotzen diren jarduera ekonomiko batean edo batzuetan lagundu ahal izango dute, 2020/852 (EB) Erregelamenduan eta gainerako garapen-xedapenetan (EBko Taxonomia) jasotako EBko ingurumen-taxonomiaren arabera. Plan honek trantsizio-jardueretan eta jarduera bideratzaileetan egiten dituen inbertsioen gutxieneko ehunekoa % 0 da.



### **Zein da EBko taxonomiarekin bat ez datozen ingurumen-helburuak dituzten inbertsio iraunkorren gutxieneko proportzioa?**

Planaren EBko taxonomiara egokitzen ez diren ingurumen-helburuak dituzten inbertsio iraunkorren gutxieneko proportzioa ondarearen % 10 da.



### **Zein da sozialki jasagarriak diren inbertsioen gutxieneko proportzioa?**

Sozialki jasagarriak diren inbertsioen gutxieneko proportzioa ondarearen % 10 da.



### **Zer inbertsio sartzen dira “2. Beste batzuk” atalean eta zein da helburua? Ba al dago gutxieneko ingurumen- edo gizarte-bermerik?**

Adierazitako ASG ezaugarriak sustatzeko deskribatutako prozedurak planeko inbertsio gutzietan aplikatzen zaizkie oro har, tresna deribatuei, dibertsifikaziorako inbertsioei edo daturik ez duten inbertsioei eta planaren likidezia kudeatzeko inbertsioei izan ezik.

Planak bazterketa-irizpideak izatean gutxieneko ingurumen- edo gizarte-bermeak daude. Irizpide horiek eragotzi egiten dute Enpresa Multinazionalentzako ELGaren Gidalerroak eta enpresei eta giza eskubideei buruzko Nazio Batuen Printzipio Gidariak betetzen ez dituzten jaulkitzaileetan inbertitzea, Lanaren Nazioarteko Erakundearen laneko oinarritzko printzipioei eta eskubideei buruzko Adierazpenean eta Giza Eskubideen Nazioarteko Gutunean aipatzen diren oinarritzko zortzi hitzarmenetan ezarritako printzipioak eta eskubideak barne.



### **Non aurki daiteke produktuari buruzko informazio xehetu gehiago?**

Produktuari buruzko informazio espezifiko gehiago BGAEaren webgunean aurki daiteke ([www.Baskepensiones.es](http://www.Baskepensiones.es)), baita bazkide sustatzailearenean ([www.kutxabank.es](http://www.kutxabank.es)).